



Aingeru Epaltza

◆ IDAZLEA

Gure izaeraren neurriko

ESPAINOLEN *tertulien* eta frantse- sen *salonsen* ondorengo, irakurle taldeak ez dira gure asmakizuna. Irakurketa bakartia eta harreman sozialak uztartzen dituen sistema hau, alabaina, ederki ezkontzen da gure “saldo” izaerarekin. Taldean gauzatu ohi dira ekintzarik miresgarri eta arriskutsuenak. Jende mordo bat bere kabuz sekula santan erosi eta irakurriko ez lituzkeen liburuei adorez hurbiltzen zaie ekimena sailean sortuz gero.

Ohartua nintzen lehenago –beharko ohartu– irakurle taldeek gure sistema literario txipian hartu duten garrantzia. Astero, bi minutuko azterketa sozio-literarioak egiten ditut Susa argitaletxeak nire e-postara igortzen duen *emailu* bakoitzarekin. Lehengo urriaren 30ekoak, ordea, aho bete hortz utzi ninduen alde guztietatik. Zenbat eta hogeita hiru irakurle talde agertzen ziren, egun horretan, Euskal Herriko bazter gehienetan barreiatuak.

Beharbada egun apartekoa izanen zen hura, halabeharrak ekitaldi pila bat metatutakoa. Aste honetako *emailuan* ez ditugu, seguru aski, hogeita hiru irakurle talde atzemanen. Fenomenoari benetako neurria harrapatzeko, aise ere lan serioagoa beharko litzateke bertze zereginik gabeko so-egile diletante honek begi-kolpe bakar batetik ateratzen ahal dituen ondorio arinak baino. Hori guztia egia izanagatik ere, ez diot datuari sintomaren balioa kendu nahi.

Kopuru hutsa ez ezik, taldeen banaketa ere deigarria zen herrialdez herrialde, joan den urriaren 30ean: hamar Bizkaian, zazpi Gipuzkoan, lau Nafarroan eta bi Araban. Nonbait, irakurketa

kolektiboaren premia gutiago du euskal irakurle gehien dituen probintziak.

Horren aldean, ez nau hainbertze harritu talde horiek hautatutako idazlanetan nobelak duen erabateko nagusitasunak. Hogeita hiru idazlanetarik hamazazpi genero horretakoak ziren. Aise ere gibelatago heldu ziren ipuin liburuak, lau alerekin. Gainerako biek poesiaren eta haral, antzerkiaren artean egiten zuten erdibana.

Bertze sorpresa bat. Jatorrizko liburuen aldean itzulpenek izaten duten harrera eskasaz ozenki penatu izan gara euskal literatur-

Astero, bi minutuko azterketa sozio-literarioak egiten ditut Susa argitaletxeak nire e-postara igortzen duen emailu bakoitzarekin. Lehengo urriaren 30ekoak, ordea, aho bete hortz utzi ninduen alde guztietatik

zaleok. Ez zen halakorik ageri delako *emailuaren* laginean. Hogeita hiru liburuetarik erdiak baino gehiago –hamalau– bertze hizkuntzetatik bihurtuak ziren. Merezi bezalako arreta, azkenik, euskarara ekartzen ditugun lanek? Edo irakurle taldeetan jarrera militantea dago itzulpenen aldera?

Izanen da nork argitua. Agian, bidean daude hori guztia aztertuko duten *Torrealdai* berriak. ■



BERTSO BERRIAK

Ainhoa
Agirreazaldegi
Rekondo

◆
Doinua: ETAre
su-etenetik.



Zaintza partekatua

Epailen eskutara heldu da zenbait eskari gaiak mami zabala du zauriak ere ugari. Legeak erantzun behar dio kasu bakoitzari: zein zaintza eman dioten bi gurasoek haurrari. Legegile ez garenok hel dezaioگون gaiari izebergari osoki ta ez bakarrik puntari: dibortzioen aurreko zaintza partekatuari.

Haurtxo bat sortu orduko hasten da eginkizuna: gauetako esnaldiak, negarren zurruntasuna, paseoak, jatorduak, etxeko garbitasuna, ipuinak, kantik, jolasak, gaixo dagoen eguna, eskoletako bilerak, euri-egunen astuna... Guraso batek bestea behar du bidelaguna has gaitezen behingoz lantzen erantzunkidetasuna.

Hau ez da sokatira bat batzuek besteen kontra hau bizitzaren plaza da eguneroko errota. Berdintasuna lantzeko premia latza dago-ta zein bidetatik lan egin hor dago galdera sorta. Gaia epaitegitara heldu denez ate joka atea zabaldu digu eskutan jarri erronka: gizarte osasuntsu bat eraikitzeko borroka. ■